# KONTABILITATE MUGIMENDUEN KAPITULUA

# BALIDAZIOAK ETA AKATSAK

ZIRRIBORROA

Bertsioaren data: 2023/10/02

# AURKIBIDEA

**1 SARRERA ..... 3**

**2 BERTSIOEN KONTROLA ..... 4**

2.1 Hasierako 1.0 bertsioa ..... 4

**3 BALIDAZIOAK. ..... 5**

3.1 Motak ..... 5

3.2 Eragiketa guztietan komunak ..... 5

3.3 Datu orokorren alta (7.1 alta) ..... 6

3.4 Mugimenduen alta (7.2 alta) ..... 8

3.5 Osotasuna egiaztatu (7.1 osotasuna) ..... 9

3.6 Ezeztapena (7.1 ezeztapena) ..... 11

3.7 Datu orokorren kontsulta (7.1 kontsulta) ..... 11

3.8 Mugimenduak kontsultatu (7.2 kontsulta) ..... 12

**4 AKATSEN ZERRENDA ..... 13**

4.1 Bidalketa osoa baztertzea eragiten duten akatsak ..... 13

ZIRRIBORROA

# 1 SARRERA

EEELren Kontabilitate Mugimenduen Kapitulua jasotzeko prozesuan, BFAk baliozkotze batzuk egiten ditu automatikoki. Dokumentu honetan zehazten dira egiten diren baliozkotzeak, horietako bakoitzari dagozkion akatsen tipifikazioa eta akats horiei lotutako kodeak eta deskribapenak.

ZIRRIBORROA

# 2 BERTSIOEN KONTROLA

## 2.1 Hasierako 1.0 bertsioa

Dokumentuaren sorrera.

ZIRRIBORROA

# 3 BALIDAZIOAK.

## 3.1 Motak

Bi baliozkotze mota definitu dira:

1. Plataforma baliozkotzeak: sarrera plataforman emandako datuei lotuta. Baliozkotzen horien akats kodeak ikusteko, honako dokumentu hau kontsultatu behar da:
   - Servicio_Entradas_descripcion_tecnica_llamada_v_1_0_5.pdf
2. Negozio baliozkotzeak: eskaera gorputzaren XMLn eta HTTP goiburuareb parametroetan bidalitako negozio datuekin lotuta:
   - Egitura baliozkotzeak eta baliozkotze sitaktikoak: etiketen egiturak etiketen ordenari, derrigortasunari, formatuari eta luzerari dagokienez eskema betetzen duela baliozkotzeko, eta balioa ea bat etorri behar den aldez aurretik ezarritako hainbat baliorekin, dagokion kasuetan.
   - Datu orokorrak baliozkotzea: datu orokorrei alta emateko eragiketan bidalitako informazioak negozio baldintzak betetzen dituen baliozkotzeko.
   - Blokeak baliozkotzea: mugimenduei alta emateko eragiketan bidalitako informazioak negozio baldintzak betetzen dituen baliozkotzeko. Kasu horretan blokeei lotutako esparruak baliozkotzen dira.
   - Mugimenduak baliozkotzea: mugimenduei alta emateko eragiketan bidalitako informazioak negozio baldintzak betetzen dituen baliozkotzeko. Kasu horretan mugimenduei lotutako esparruak baliozkotzen dira.
   - Osotasun baliozkotzeak: Osotasuna baliozkotzea askotariko blokeetan bidaliko datu orokorrekin eta mugimendu guztiekin batera.
   - Bestelakoak: gainerako KMK eragiketei lotutako negozio baliozkotzeak: kontsultak, ezeztapenak, etab.

Eskaerak ez badu baliozkotzeetakoren bat betetzen, sistemak osorik baztertuko du. Baztertutako eskaera baten informazio guztia berriz bidali beharko da.

## 3.2 Eragiketa guztietan komunak

Baliozkotze horiek eragiketa guztietan aplikatzen dira: Batez ere, HTTP eskaeraren goiburuaren parametroen eta eskaera gorputzaren XMLren edukiaren arteko koherentziari dagokie.

| Eremua | Baliozkotzea | Errore kodea |
|---|---|---|
| Eredua | HTTP goiburuan adierazitako eredua bat etorri behar da gorputzeko XMLn adierazitakoarekin. | B4_1700001 |
| Interesdunaren IFZ | HTTP goiburuan adierazitako interesdunaren IFZ bat etorri behar da gorputzeko XMLn adierazitako | B4_1700002 |

ZIRRIBORROA

| | | |
|---|---|---|
| | zergapekoarekin. | |
| Interesdunaren IFZ | HTTP goiburuko interesdunaren IFZ bat etorri behar da pertsona juridiko motarekin. | B4_1700003 |
| Zergapekoaren IFZ. | Zergapekoaren IFZk baliozko formatua izan behar du. | B4_1700004 |
| Atala | HTTP goiburuan adierazitako atala bat etorri behar da gorputzeko XMLn adierazitako azpikapituluarekin. | B4_1700005 |
| Interesdunaren sozietate izena. | HTTP goiburuan adierazitako interesdunaren sozietate izena bat etorri behar da gorputzeko XMLn adierazitako zergapekoarekin. | B4_1700006 |
| Ekitaldia | HTTP goiburuan adierazitako ekitaldia bat etorri behar da gorputzeko XMLn adierazitako ekitaldiarekin. | B4_1700007 |
| Ekitaldia | Ekitaldiak KMK indarrean jarri ondorengoa edo berdina izan behar du. | B4_1700008 |
| | HTTP eskaeraren gorputzeko XMLk XSD eskema bete behar du. | B4_1700009 |
| Eragiketa | Eskaeraren gorputzeko XMLren eragiketa zuzena izan behar da adierazitako kapitulurako ezta azpikapitulurako. | B4_1700010 |

## 3.3 Datu orokorren alta (7.1 alta)

Baliozkotze horiek HTTP eskaeren XMLaren edukiari aplikatzen diote datu orokorren alta eragiketan.

| **Eremua** | **Baliozkotzea** | **Errore kodea** |
|---|---|---|
| Hasiera data | Aldiaren hasiera data baliozkoa izan behar da. Adibidez, hasiera hilabetea ezin daiteke izan “13”. | B4_1700033 |
| Amaiera data | Aldiaren amaiera data baliozkoa izan behar da. Adibidez, hasiera hilabetea ezin daiteke izan “13”. | B4_1700033 |
| Aldia | Goiburuko ekitaldia bat etorri behar da aldiaren datuen hasiera data esparruaren urtearekin. | B4_1700011 |
| Aldia | Aldiaren Amaiera eguna Hasiera eguna baino handiagoa edo berdina izan behar da. | B4_1700012 |
| Aldia | Hasiera eta amaiera daten arteko aldia urte bat edo gutxiago iraun | B4_1700013 |

ZIRRIBORROA

ZIRRIBORROA

| | | |
|---|---|---|
| | beharko du. | |
| Aldia | Aitorpen aldiaren amaiera data aurkezpen data baino txikiagoa edo bera izan behar da. | B4_1700014 |
| Aldia | Aldi zehatz batean zehar edo aldi horren une jakin batean soilik aitorpen bat egon daiteke aribidean edo aurkeztuta. Aldiak ezin dira gainjarri, ordezko aitorpenen kasuan izan ezik. | B4_1700015 |
| Aldia | Ordezko aitorpenetarako, aldi berean aurretik aurkeztutako aitorpen bat egon behar da (ordezkatu nahi den aitorpena). | B4_1700016 |
| Aldatu forma juridikoa | “AldatuFormaJuridikoaIFZAldia” esparruaren IFZk baliozko formatua izan behar du. | B4_1700004 |
| Aldatu forma juridikoa | "AldatuFormaJuridikoaIFZAldia" esparruko 2tik 9rako posizioak bat etorri behar dira goiburuan adierazitako zergapekoaren IFZrekin. | B4_1700018 |
| Aldatu forma juridikoa | "AldatuFormaJuridikoaIFZAldia" esparrua ezin da goiburuan adierazitako Zergapekoaren IFZa izan. | B4_1700060 |
| Kontabilitate eredu mota | Onartutako zergapekoaren IFZko letrak kontabilitate eredu motan.<br>C01: A B C D G N U V W Q R<br>C02: A B C D G N U V W Q R<br>C03: A F G N V W<br>C04: A B C D F G N V W<br>C05: Or.<br>C06: A V<br>C07: F<br>C08: F<br>C09: A G V<br>C10: A G V | B4_1700019 |
| Balantzea | Balio posibleak Kontabilitate Eredu Motaren arabera.<br>C03, C04, C05 eta C06 KONTABILTATE EREDU MOTAK: NA<br>C01, C07 eta C09 KONTABILTATE EREDU MOTAK: NO / AB<br>C02, C08 eta C10 KONTABILTATE EREDU MOTAK: PY | B4_1700020 |
| Galera eta irabazien kontua | Balio posibleak Kontabilitate Eredu Motaren arabera.<br>C03, C04, C05 eta C06 KONTABILTATE EREDU MOTAK: NA<br>C01, C07 eta C09 KONTABILTATE EREDU MOTAK: NO / AB<br>C02, C08 eta C10 KONTABILTATE EREDU MOTAK: PY | B4_1700057 |
| Ondare garbiaren aldaketen egoera | Balio posibleak Kontabilitate Eredu Motaren eta Balantze esparruaren arabera.<br>C03, C04, C05 eta C06 KONTABILTATE EREDU MOTAK: NA<br>C01, C07 eta C09 KONTABILTATE EREDU MOTAK:<br>NO/AB: kasu guztietan adieraz daitezke balio horiek kontabilitate mota horietarako. | B4_1700021 |

| | | |
|---|---|---|
| | NC: soilik adierazi ahal da BALANTZEA = AB denean<br>C02, C08 eta C10 KONTABILTATE EREDU MOTAK: PY / NC | |

## 3.4 Mugimenduen alta (7.2 alta)

Baliozkotze horiek HTTP eskaeren XMLaren edukiari aplikatzen diote mugimenduen alta eragiketan.

| **Eremua** | **Baliozkotzea** | **Errore kodea** |
|---|---|---|
| Id. aitorpena | Adierazitako aitorpena sisteman jasota egon behar da adierazitako ekitaldirako, eta zergapekoaren "Blokeak jasotzeke" egoeran dagoen deklarazio batekin bat etorri behar du. | B4_1700022 |
| Sozietatearen izena | Zergapekoaren sozietate izena bat etorri behar da aitorpenaren datu orokorrekin. | B4_1700024 |
| Id. blokea | Adierazitako blokearen identifikagarria sisteman bakarra izan behar da. | B4_1700025 |
| Blokearen IDa | Blokearen zenbakia datu orokorretan adierazitako bloke kopuru osoa baino txikiagoa edo bera izan behar da. | B4_1700026 |
| Mugimenduak | Bloke bat baino gehiagoko aitorpenetan bloke guztiek, azkenak izan ezik, bloke bakoitzeko 8.000 mugimendu izan behar dituzte gutxienez. | B4_1700028 |
| Idazpen mota | Adierazitako idazpen motak honako baldintza hauek bete beharko ditu:<br>- A mota: adierazpenean idazpen bakarra egon behar da, eta epealdiko lehena izan behar du beti. | B4_1700029 |
| Idazpen mota | Adierazitako idazpen motak honako baldintza hauek bete beharko ditu:<br>- C mota: aldiko azken idazpena izan behar da beti. | B4_1700031 |
| Idazpen mota | Idazpen baten lerro guztiak (BLOKE baten barruan) mota berberekoak izan beharko dira. | B4_1700027<br>B4_1700030 |
| Idazpenaren zenbakia | Blokeko idazpenek (BLOKE baten barruan) ez dute zenbaki hurrenkera jarraitua edo izendapen zenbakien artean tarteak daude. | B4_1700032 |
| Idazpenaren data | Idazpenaren data baliozkoa izan da. Adibidez, hasiera hilabetea | B4_1700027 |

ZIRRIBORROA

ZIRRIBORROA

| | | |
|---|---|---|
| | ezin daiteke izan “13”. | B4_1700033 |
| Idazpenaren data | Idazpenaren data ezin da aldatu idazpen zenbaki batean (ez da data anitzeko idazpenik onartuko) BLOKE baten barruan. | B4_1700034 |
| Idazpenaren data | Aitorpenaren idazpenak (BLOKE baten barruan) dataren arabera antolatuta egon behar dira, kronologikoki. | B4_1700058 |
| Idazpenaren data | Idazpenaren datak honako baldintza hauek bete beharko ditu:<br>- IdazpenMota=A bada-> IdazpenData=7.1 aldiaren hasiera data<br>- IdazpenMota=M bada-> IdazpenData 7.1 aldiaren hasiera eta amaiera data (biak barne)<br>- IdazpenMota=R bada-> IdazpenData=7.1 aldiaren amaiera data<br>- IdazpenMota=C bada-> IdazpenData= 7.1 aldiaren amaiera data | B4_1700027<br>B4_1700035 |
| Zorra-Hartzekoa | LERRO baten barruan 0 ez den ZOR edo HARTZEKO zenbateko bat egon behar da. | B4_1700027<br>B4_1700036 |
| Idazpenaren lerroa | IDAZPEN baten barruan (BLOKE batean) lerroek orden korrelatiboa izan behar dute, tarterik gabe, eta idazpen bakoitzaren lehenengo lerroa 1 izango da. | B4_1700027<br>B4_1700037 |
| Kontu kodea | Emandako kontu kodea egon behar da aitorpenaren kontabilitate eredurako. Kontabilitate eredu bakoitzerako balio duten kontu kodeak argitaratuta daude “Dokumentazio teknikoa” atalean, hemen: www.batuz.eus. | B4_1700027<br>B4_1700038 |
| Kontu kodea | Irekitzeko eta ixteko idazpenetan ez da 6, 7, 8 edo 9 taldeetako kontu koderik egon behar. | B4_1700027<br>B4_1700039 |
| Kontu kodea | Aktibo ez dagoen erakunde baten mugimendu idazpenetan ez da 6 edo 7 taldeetako kontu koderik egon behar. | B4_1700027<br>B4_1700040 |
| Kontu kodea | Erregularizazio idazpenetan soilik 6, 7, 8 eta 9 taldeetako, 13 azpitaldeko eta 115 eta 129 kontuetako kontu kodeak egon behar dira. | B4_1700027<br>B4_1700041 |

## 3.5 Osotasuna egiaztatu (7.1 osotasuna)

Eragiketa horrek emango du erantzuneko http eskaeraren gorputzean aitorpenaren egoeraren berri bai eta osotasun egiaztapenari lotutako akatsen berri ere (hala badagokio): idazpen zenbaki akatsa, idazpen lerroa, akats kodea eta akatsaren deskribapena.

| **Eremua** | **Baliozkotzea** | **Errore kodea** |
|---|---|---|
| Id. aitorpena | Adierazitako aitorpena sisteman jasota egon behar da adierazitako ekitaldirako. | B4_1700055 |
| Sozietatearen izena | Zergapekoaren sozietate izena bat etorri behar da aitorpenaren datu orokorrekin. | B4_1700024 |
| Idazpen mota | Adierazitako idazpen motak honako baldintza hauek bete beharko ditu:<br>- M mota: gutienez idazpen bat egon beharko da erakundea aktibo badago. | B4_1700042 |
| Idazpen mota | Adierazitako idazpen motak honako baldintza hauek bete beharko ditu:<br>- C mota: ixteko idazpen bakarra egon beharko da eta beti aldiko azkena izan beharko da. | B4_1700051 |
| Idazpen mota | Halakorik balego, erregularizazio idazpenak itxiera idazpenaren aurretik egon behar dira, jarraian. | B4_1700043 |
| Idazpenaren zenbakia | Adierazpenaren idazpen guztiek zenbakizko hurrenkera korrelatiboa izan behar dute, eta ez dute hutsunerik izan behar idazpen zenbakien artean. | B4_1700044 |
| Idazpen mota | Idazpen baten lerro guztiak mota berberekoak izan beharko dira. | B4_1700045 |
| Idazpenaren data | Idazpenaren data ezin da aldatu idazpen zenbaki batean (ez da data anitzeko idazpenik onartuko). | B4_1700046 |
| Idazpenaren data | Aitorpenaren idazpenak dataren arabera antolatuta egon behar dira, kronologikoki. | B4_1700059 |
| Idazpenaren lerroa | IDAZPEN baten barruan lerroek orden korrelatiboa izan behar dute, tarterik gabe, eta idazpen bakoitzaren lehenengo lerroa 1 izango da. | B4_1700047 |
| Zorra-Hartzekoa | IDAZPEN ZENBAKI berean, bat etorri behar dira ZORRAREN zenbatekoaren batura eta HARTZEKOAREN zenbatekoaren batura. | B4_1700048 |
| Zorra-Hartzekoa | Kontu batean Zorrean erregistratutako zenbatekoen | B4_1700049 |

ZIRRIBORROA

| | | |
|---|---|---|
| | batukariak kontu horrek Hartzekoan duen batukariaren berdina izan behar du. | |
| Zorra-Hartzekoa | Zorreko mugimendu eta irekitzeko idazpenetan erregistratutako 129 kontuko zenbatekoen batukariak bat etorri behar du Hartzean idazpen horietan erregistratutako zenbatekoekin. Kontabilitate azalpena: aurreko ekitaldiko emaitza aplikatu behar da. Oharra: baliozkotze hori ez da aplikagarria 115 eta 13X kontuetan. | B4_1700050 |
| Kontu kodea | Erregularizazio idazpen bakoitzean, 129 kontua ateratzen bada, 129 kontuko mugimendu bakarra egon behar da, hala nola, idazpen bereko 6. eta 7. taldeetako kontuetako saldoen arteko aldea. | B4_1700052 |

## 3.6 Ezeztapena (7.1 ezeztapena)

Baliozkotze horiek HTTP eskaeren XMLaren edukiari aplikatzen diote ezeztatze eragiketan.

| Eremua | Baliozkotzea | Errore kodea |
|---|---|---|
| Id. aitorpena | Adierazitako aitorpena sisteman jasota egon behar da adierazitako ekitaldirako, eta zergapekoaren "Aurkeztuta", "Blokeak jasotzeke" edo "Egiaztatzeke" egoeran dagoen deklarazio batekin bat etorri behar du. | B4_1700054 |
| Sozietatearen izena | Zergapekoaren sozietate izena bat etorri behar da aitorpenaren datu orokorrekin. | B4_1700024 |

## 3.7 Datu orokorren kontsulta (7.1 kontsulta)

Baliozkotze horiek HTTP eskaeren XMLaren edukiari aplikatzen diote datu orokorren kontsulta eragiketan.

| Eremua | Baliozkotzea | Errore kodea |
|---|---|---|
| Sozietatearen izena | Zergapekoaren sozietate izena bat etorri behar da aitorpenaren datu orokorrekin. | B4_1700024 |

ZIRRIBORROA

## 3.8 Mugimenduak kontsultatu (7.2 kontsulta)

Baliozkotze horiek HTTP eskaeren XMLaren edukiari aplikatzen diote mugimenduen kontsulta eragiketan.

| **Eremua** | **Baliozkotzea** | **Errore kodea** |
|---|---|---|
| Sozietatearen izena | Zergapekoaren sozietate izena bat etorri behar da aitorpenaren datu orokorrekin. | B4_1700024 |

ZIRRIBORROA

ZIRRIBORROA

# 4 AKATSEN ZERRENDA

## 4.1 Bidalketa osoa baztertzea eragiten duten akatsak

KMK akats guztiek bidalketa osoa egitea galaraziko dute. Hori dela eta, EEELren gainerako baliozkotzeekiko homogeneoa izateko eta kontuan izanda KMK 7. kapitulua dela, kodeak B4_17 hasiko dira.

| **Errore kodea** | **Deskribapena** |
|---|---|
| B4_1700001 | HTTP goiburuan adierazitako eredua ez dator bat gorputzeko XMLn adierazitakoarekin. |
| B4_1700002 | HTTP goiburuan adierazitako interesdunaren IFZ ez dator bat gorputzeko XMLn adierazitako zergapekoarekin. |
| B4_1700003 | HTTP goiburuko interesdunaren IFZ ez dator bat pertsona juridiko motarekin. |
| B4_1700004 | IFZren formatua okerra da. |
| B4_1700005 | HTTP goiburuan adierazitako atala ez dator bat gorputzeko XMLn adierazitako azpikapituluarekin. |
| B4_1700006 | HTTP goiburuan adierazitako interesdunaren sozietate izena ez dator bat gorputzeko XMLn adierazitako zergapekoarekin. |
| B4_1700007 | HTTP goiburuan adierazitako ekitaldia ez dator bat gorputzeko XMLn adierazitako ekitaldiarekin. |
| B4_1700008 | Adierazitako ekitaldia Lurralde Historikoetako Agintaritza eta Kontrol Zentroa indarrean sartu aurrekoa da. |
| B4_1700009 | HTTP eskaeraren gorputzeko XMLk ez du XSD eskema betetzen. |
| B4_1700010 | Eskaeraren gorputzeko XMLren eragiketa ez da zuzena adierazitako kapitulurako ezta azpikapitulurako. |
| B4_1700011 | Goiburuko ekitaldia ez dator bat aldiaren datuen hasiera data esparruaren urtearekin. |
| B4_1700012 | Aldiaren amaiera data hasiera dataren aurrekoa da. |
| B4_1700013 | Hasiera eta amaiera daten arteko aldia urte natural bat baino gehiago irauten du (HASIERA DATA eta urtebete gehiago). |
| B4_1700014 | Aitorpen aldiaren amaiera data aurkezpen data baino handiagoa da. |
| B4_1700015 | Aitorpen bat dago adierazitako aldi osoaren edo parte baterako aurkeztuta edo |

| | |
|---|---|
| | aribidean. Aldiak gainjarri dira. |
| B4_1700016 | Ordezko aitorpena markatu da eta ez dago aitorpen horretan adierazitako aldi bereko aurreko aitorpenik. |
| B4_1700018 | "AldatuFormaJuridikoaIFZAldia" esparruko 2tik 9rako posizioak ez datoz bat goiburuan adierazitako zergapekoaren IFZrekin. |
| B4_1700019 | Zergapekoaren IFZko letra ez dago onartuta kontabilitate eredu motan. |
| B4_1700020 | Okerra da balantzeko balioa, kontabilitate eredu motaren arabera. |
| B4_1700021 | Okerra da balioa ondare garbiaren aldaketa egoeran, kontabilitate eredu motaren, balantzearen eta galeren eta irabazien kontuaren arabera. |
| B4_1700022 | Adierazitako aitorpena ez dago sisteman adierazitako ekitaldirako edo ez dago “Blokeak jasotzeke” egoeran. |
| B4_1700024 | Zergapekoaren sozietate izena ez dator bat aitorpenaren datu orokorrekin. |
| B4_1700025 | Adierazitako blokearen identifikagarria sisteman jasota dago. |
| B4_1700026 | Blokeko zenbakia datu orokorretan adierazitakoa baino handiago da. |
| B4_1700027 | Errorea mugimenduetan. Kontsultatu eskaeraren gorputzaren erroreen xehetasuna. |
| B4_1700028 | Blokeak 8000 mugimendu baino gutxiago ditu. |
| B4_1700029 | A idazpen mota ez da zuzena. Adierazpenean idazpen bakarra egon behar da, eta epealdiko lehena izan behar du beti. |
| B4_1700030 | Errorea blokeko idazpen motaren koherentzian. |
| B4_1700031 | C idazpen mota ez da zuzena. Aldiko azken idazpena izan behar da beti. |
| B4_1700032 | Blokeko idazpenek ez dute zenbaki hurrenkera jarraitua edo izendapen zenbakien artean tarteak daude. |
| B4_1700033 | Data ez da baliozkoa. |
| B4_1700034 | Errorea blokeko idazpen dataren koherentzian (ez daude onartuta data askoko idazpenak). |
| B4_1700035 | Idazpenaren data ez dator bat aldiarekin. |
| B4_1700036 | Ez dago lerroan ZORRA edo HARTZEKOA zenbatekorik. |
| B4_1700037 | Blokearen barruan, idazpen baten lerroek ez dute zenbaki hurrenkera jarraitua, tarteak daude edo ez dira hasten 1. zenbakitik. |

ZIRRIBORROA

| | |
|---|---|
| B4_1700038 | Emandako kontu kodea ez dago aitorpenaren kontabilitate eredurako. Kontabilitate eredu bakoitzerako balio duten kontu kodeak argitaratuta daude “Dokumentazio teknikoa” atalean, hemen: www.batuz.eus. |
| B4_1700039 | Irekitzeko eta ixteko idazpenetarako ez dute balio 6, 7, 8 edo 9 taldeetako kontu kodeek. |
| B4_1700040 | Aktibo ez dagoen erakunde bateko mugimenduen idazpenetarako ez dute balio 6 edo 7 taldeetako kontu kodeek. |
| B4_1700041 | Adierazitako kontu kodeak ez du balio erregularizazio idazpenetan. |
| B4_1700042 | Gutxienez, mugimendu idazpen bat egon behar da erakundea aktibo badago. |
| B4_1700043 | Erregularizazio idazpenaren ordena okerra da. |
| B4_1700044 | Adierazpenaren idazpenek ez dute zenbaki hurrenkera jarraitua edo izendapen zenbakien artean tarteak daude. |
| B4_1700045 | Errorea blokeen arteko idazpen motaren koherentzian. |
| B4_1700046 | Errorea blokeen arteko idazpen dataren koherentzian (ez daude onartuta data askoko idazpenak). |
| B4_1700047 | Idazpen baten lerroek ez dute zenbaki hurrenkera jarraitua, tarteak daude edo ez dira hasten 1. zenbakitik. |
| B4_1700048 | Zorraren zenbatekoen batura ez dator bat Hartzekoaren zenbatekoen baturarekin, idazpen zenbaki beraren barruan. |
| B4_1700049 | Zorraren kontuan erregistratutako zenbatekoen batura ez dator bat kontu horretako hartzeko kontuaren baturarekin. |
| B4_1700050 | Zorreko mugimendu eta irekitzeko idazpenetan erregistratutako 129 kontuko zenbatekoen batukaria ez dator bat Hartzean idazpen horietan erregistratutako zenbatekoekin. Kontabilitate azalpena: aurreko ekitaldiko emaitza aplikatu behar da. Oharra: baliozkotze hori ez da aplikagarria 115 eta 13X kontuetan. |
| B4_1700051 | C idazpen mota ez da zuzena. Itxiera idazpen bakarra egon behar da, eta aldiaren azkena izan behar du beti. |
| B4_1700052 | Erregularizazio idazpenaren edukia okerra da. 129 kontuko mugimendu bakarra egon behar da, 6 eta 7 taldeetako kontuen saldoen arteko aldea bezala (aldiko irabaziak eta gastuak). |
| B4_1700054 | Adierazitako aitorpena ez dago sisteman adierazitako ekitaldirako edo ez dago “Aurkeztuta”, “Blokeak jasotzeke” edo “Egiaztatzeke” egoeran. |

ZIRRIBORROA

| | |
|---|---|
| B4_1700055 | Adierazitako aitorpena ez dago sisteman adierazitako ekitaldirako. |
| B4_1700056 | Blokearen identifikagarria ez dago sisteman. |
| B4_1700057 | Okerra da balioa galeren eta irabazien kontuan, kontabilitate eredu motaren arabera. |
| B4_1700058 | Blokeko idazpenak ez daude dataren arabera ordenatuta. |
| B4_1700059 | Aitorpenaren idazpenak ez daude dataren arabera ordenatuta. |
| B4_1700060 | HTTP goiburuan adierazitakok zergapekoaren IFZ gorputzaren XMLren "AldatuFormaJuridikoaIFZAldia" esparruan adierazitako berbera da. |

ZIRRIBORROA